



Erref. kodea: LAF-204-036 [6]

Izenburua: Lan fitxategiak: Biografiak:
Euskal literatura



S E B A S T I A N M E N D I B U R U
(1.708-1.782)

Jesusen Lagundiko Aita ospetsu au Ciartzunen sortu ta Bolonian il zan. Iruñan irakaslari izana, eta ondoren Nafarroa eta Gipuzkoan mixiolarri gartsu ibillia. Ona emen bere euskal liburu bikain-bikaiñak:

- 1) Jesusen amōre-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai (Iruña tomo, Iruña 1.760);
- 2) Euskaldun onaren biziera (Iruña, 1.762);
- 3) Jesusen Biotzaren debozios (Donostia, 1.747).

Atzeneko onetatik artua degu gure atala.



J U A N A N T O N I O M O G E L
(1.745-1.804)


Iru Mogeldarrak ditugu: Juan Jose ta Vicente anai-arrebak, eta Juan Antonio bion osaba. Juan Antonio Eibarko seme argia degu, bere bizi-tzarik geiena Markinan eman bazuan ere. Markinako Erretore Jauna izan zan. Lanik asko egin zun euskeraz edo euskeraren alde. Orra titulu batzuk:
1) Kristiñaubaren jakinbidea; 2) Kristiñau doktrina; 3) Konfesiño ta Komuniñoko Sakramentuen gañean irakastea; 4) Versiones Bascongadas de varias aren-gas y oraciones selectas de los mejores autores latinos; 5) Estudios gramaticales sobre la lengua euskara; 6) Diálogo bascongados; 7) Cartas y disertaciones sobre la lengua bascongada; 8) La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence. Bañia Mogelen liburuetan aipagarriena, eta iñoiiz euskeraz argitaratu den libururik

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

ederrenetakoas, suxe: El Doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte, o diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan (Durango 1.881). Ona emen Diálogo

Segundotik artutako zatia.



J O S E I G N A C I O G E R R I K O
(1.740-1.824)

Seguran jaio. Mutiloan bizi ta il zan, bertako apaiz zalarik. "Kristau doktriña guztiaren esplikazioaren saiakera (ensayo), euskerazko platika edo doktrinetan partiturik", utzi zuen idatzirik. Gerriko illez gero argitaratu zan, bi liburu edo tomutan (Tolosa 1.858). Lenengo tomutik artua da emen dakargun pusketa. Jakoben ~~same~~ Joseeren kondairaz diardu.

J U A N B A U T I S T A A G I R R E

(1.742-1.823)

Asteasun jaioa ta illa, eta arrri beroneta
tan apaiz izana. Asteasutarrai egileko predikuak,
iru liburutan bilduak, Tolosan argitaratu ziran
(1.850). Oien izenak:

- 1) Jesukristok bere Elizari utzi ziozkan zazpi
Sakramentuen gañean Erakusaldiak.
- 2) Jesukristo eta Birjiña txit Santeren miste-
rioen Erakusaldiak.
- 3) Jaungoikoaren legeko aginteen gañean Erakusal-
diak.

Lendabizikotik artua da emen jarri degun
atala.

FR. PEDRO ANTONIO DE AÑIBARRO
(1.748-1.830)


Villaron jaio etsa Zarautzan il. Aita San Frantziskoren Ordenako praillea. Zarautzan bizi zan, ango frantziskotarren etxe-komentuan; sasoi artan komentu ori Mixiolari-aztetxe ospetua genu (Colegio de Misioneros Apostólicos), eta gure Aita Añibarro ere euskal errieta mixioak ematen asko ibilia zan. Lan errigarría egin zun praille langille onek euskeraren alde, baino geiena argitaratu gabe gelditu zan. Argitaratuak: Kristau dotriña... Naparroko euskeren, Lora Sorta Espirituualia (Tolosa, 1.803), Esku liburua (Tolosa, 1.802), Misiooko kanta santuak (Donostia, 1.803), Kurutze Santearen, Aits Gure ta Ave Marien ganeko erakusaddiak (Durango, 1.897). Axularren Geroko Gero ere bizkaiez jarri zuan, eta lan sundi au R I E V aldizkarian, 1.923 gn. etaurrengo urteetan atalka agertzen zizoen Espaiñiko gerrateaz agerkari ori itzali

zan arte; beraz, etzan osorik agertu. Argitara ga-
beak: Misionari Euskalduna (Misicetako predikuak,
bi liburutan; oien zati bat 1.897 gnean. Durangon
azalduriko liburutxoan argitara zan). Nekes Arin-
durik (nekepean bizi diranentzat gogartea), Lau
Evangeliak batera alkarturik, Voces Bascongadas
diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra...,
para uso y alivio de Parrocos y Predicadores bas-
congados. Nafarroko Kristau Dotriña ez, beste guz-
tia bizkaierez idatzia du. Ora emen Añibarren
atal batzuk.



A I T A P R A I B A R T O L O M E
(1.768-?)

Markina-Etxebarriko seme argia. Markinan, Karmen Ortozeko komentuan luzaro izan zan predikari trebe ta bikaiña. Jaungoikoaren Amar Aginduak eta Zazpi Sakramentuak iru liburutān argitara eman zituan (Iruña, 1.816). Bai eta, urte berean, beste liburutxu polit bat ere: Euskal errijetako olgeta ta dantzeen neurrizko gatz-oz-pindua. Emendik artuak dituzu lerro suek.



7
10
JUAN IGNACIO IZTUETA
9
(1767-1845)

8 Jaio ta il Zaldibian egin zitun. Gorosabel-ek dio-
7 nez (ikus "Diccionario histórico, geográfico, descriptivo de Guipúzcoa", p.634), Logroño-ko Inquisizionea-
6 ren gartzelean zegolarik, eratu zitun "Kontxesí" ize-
5 neko bere bertso ospetsuak. 1824 ganean. "Gipuzkoako
4 dantza gogoangarrien kondaira edo historia" agertu
3 zun, eta 1847 ganean. "Gipuzkoako Provinziaren kondai-
2 ra edo historia". Orra liburu onen pusketa batzu.

P A S C U A L I T U R R I A G A
1778-1851)

Apaiza, Jaio ta il Ernaniko errian egin zitun. Osperik audiens, berak idatzitako 55 ipuiek eman diote (neurtitzetan). Virgilioren lenen-Eglo-ga ta irugarrena ere euskerara zitun neurtitzetan. Aita San Inazioaren martxako itzak ere berak asmatuak dira. 1.841^{gn.} urtean argitara zun "Arte de aprender a hablar la lengua castellana. Para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa"; eta 1.842^{gnean}, onen osagarri bezela, "Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa". Ogeitairu jolas dekartzi, Basilio maixu ta Antonio ikasle dirala. Ona emen jolas oitutako pusketa batzuk.




V I C E N T A M O G E L

(1.792-1.854)

Azkoitin jaio, Markinan bizi ta Abandon il
zan emakume idazle trebe au. Asko ta sakon idatzi
zuan; ala ere, bere libururik ederrena, "Ipui Onak"
(Donostia, 1.804). 50 ipui guztiz. Ortik artus da
emen jarritako pusketa.

9



10

FRANCISCO IGNACIO LARDIZABAL
(+1855)

Zaldibiako semea ta erri bertako apaiz "benefiziala". 1835. urtean agertu zun "Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira": liburu bikain, Gipuzkoako sukaldetean txit ezagun eta maitetua, erriaren begi-begikoa. 1856. urtean agertu zan bere "Gramática Bascongada". 1855. ko izurritean ("cólera morbo") il zan.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

D O M I N G O A G I R R E
(1.864-1919)

Ondarroako seme argis. 1.888^{ko} urtean a-
paiz egin zan, eta Zumaian. Karidetako Karmelitar
Aizpaen Kapellan (omonier) bezela iraun zuen
eriotzera arte. Euskal irakurgai zoragarriren
egille dugu. Ona emen aipatuenak: Auñemendiko
lores (*La fleur du Pyrénée*); Kresala; Garoa. Le-
nengo biak bizkaiaraz, irugarrena gipuzkeraz.
Kresala ta Garoa, batez ere, asko irakurri ta za-
baldu dira; gure egunotan euskeraz egin dan li-
buru ederren ta eredugarri bezela artu izan dira.
Garbatik aldatzen ditugun atalak, 1.934^{ko} edi-
zionearen arsura dijoaz (egillearen beraren tex-
tua, obetutzearen, edizioberaren zerbaitei al-
datu egin zan). Kresaleko atala, berriz, 1.954^{ko}
urte ~~en~~etan Zarautzen ateria dan edizione beritik
sartu da.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

BUZTINTZA-tar EBAISTA ("KIRIKIÑO").
(1.866-1.929)

Maiñaria-n jaio ta il zan. Jakintza Physiko-matemakoetan bere ikasteroak egin eta Almansa-n irakasle izan ondoren, euskerari zion maitetasunagatik Euskalerrira biurtu zan, eta Azkue jaunari bere euskal lanetan lagundu zion. Jakitate aundiko gizonez, batez ere izkuntza asko zekizkiana. Gizon atsegiañea ta errikoia, Bizkai erriko euskalkiaren gatzera ta arraitesuna barru-barrutik ga atxiki zuan. "Ibaizabal" aldizkariaren artezkari ere izan zan. Bi liburu utzi dízkigu, goxo-arrai, etengabeko gatz-jerioa darakustenak: "Abarrek", ta "Bigarrengoa Abarrek", ipui, jazoera parregarri ta aspaldiko berri jakinarriz bateak. "Ji bañio iru edo lau egun lenago esan euskun, Aita ona izan zala Jaungoikoa beretzat; eskatu eutson guztia emon eutsola; aberats izaterik ez eutsola eskatu iñoz, ezpada

bere klasean jantzi eta biziteko lain, eta ori beti emon eutsola. Iñun ez ebala eskatu alogerik, emon deutsiena artu, ~~gurasoak zemanizatzeko~~ eta izten eben diru apurra bide onekoa zala, gurasoak emonika eta bere izerdiaz irabazirikoa" (Bere andrea slargunaren eskuitz batetik).

Ona emen Bigarrenko Abarretatik artutako za-tia.

O L A B I D E - t a r E R R A I M U N
(1.869-1.942).

Gazteiz edo Vitorian jaio eta Frantzisko Toulousen il zen. Jesusen Lagundikos. Itzulketan nabari zaigu maisu Aita Olabide. Ona bere liburuak: Gogo-Iñarkunak (Loiolako San Inazionen Ejerzizioak), Kristoren Antz-bidea (Imitazionea) Giza-Soña (Le corps humain) (gorputz-atalen izenbilduma au 1.917 gnean. agertu zan), Itun Berria (Testamentu Beria) (Bilbao, 1.931). Oraindik argitaratzeke, baiño amaitua, utzi zun Itun Zarra. Beraz, Biblia osoa eman digu A.Olabidek jatorrizko textutik euskerara zuzenean aldatuta. Ona emen Itun Berriko atal bat (Jn. 14)

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

RESURRECCION MARIA DE AZKUE
(1.864-1.951)

-Lekeition jaio ta Bilbaon il, bizitza osoa euskerari eskein i ondoren. Lan benetan gaitza ta eskerga apaiz prestu onek euskeraren alde burutu duana. 1.919-an Euskaltzaindi sortu zanean, beronen buru izateko autatua, eta aitzindarigo onetan eriotzera arte irauna. Itz, esakera, sci mu ta folklore-gauzak biltzen erriz-erri ibillia zan, ta ein zuzen ere, biltzaille bezela da Azkue Jauna txapeldun. Bere Diccionario vasco-español-francés (1.905), Cancionero popular vasco (1.922), Morfología Vasca (1.925) ta Euskal-erriaren Yakintza - Literatura popular del País Vasco (1.935-1.947), bilduma balotsuak ta ezin utziak dira, erri-euskera, musika ta folklorea ezagutzeko. "Euskera" agerkarian ere zerrenda luzes osatzen dute gure Azkue Jaunaren idazlanak.

Orrezaz gaiñers, literatur-baratzean ere lan ederrik asko egin zun. Ona emen lan oitatzik batzuk: "Txirristadak" (1.898), Andi galdua (1.919); au novela (roman) bat degu, ura, berriz, "Euskalzale" agerkarien idatziriko artikulu-sorta. Biotatik artutako puxketak azaltzen dira emen.

15

E G U Z K I T Z A-T A R J O N

(1.875-1939)

Lemonan jaio ta Lemonan il; bere bizitzarik geiena, ordea, Lekeition igaro zuan. Apaiza zan. Euskaltzaindia (Académie de la Langue Basque) sortu zanetik, euskaltzain izendatua. Egunkari ta aldizkarietan lan aundia egin zuen. Lan oetatik askotxo

Euskaldunindaren agerkari "EUSKERA"-n eurkitzen dira. Iru liburu aipagarri utzi dizkigu bizkaieraz; elizgaiz bi: Arimaen illa ta Loretako illa; eta beste bat jakintza gaiz: Gizarte-Auzia (La question sociale). Azken onetatik aldatu degu zati au.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

16

GREGORIO MUXIKA
(1.882-1.931)

Ormaiztegin jaio ta Donostian il. Idaazlari
trebe, bai erdersaz ta bai euskeraz. "Euskalerris-
ren alde" eta "Euskal Esnales" aldizkarien artez-
kari. Ona emen bere lanen batzuk: Euskeraren alde,
1.907; Eibarko semé ospetsuen berri Batzuek, 1.908;
Iturriaga, Kardaberaz, Urbieta, 1.910; Monografía
histórica de la villa de Eibar, 1.912; Zurtasun go-
goa, 1.922; Pernando Amezketarra, 1.927. Azkeneko
onek argitara-aldi asko izan ditu. Amaika esaera,
atelerdi ya ipuitxo ezartzen dizkio ~~ez~~ erriak! Per-
nandori; Gregorio Muxikak ateraldi te gertaera
oiek liburutxo batean bildurik eman zizkigun. Ona
emen gertaera oetatik bat.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

AGIRRE-ter JOSÉBA MIRENA
("LIZARDI")
(1.896-1.933)

Zarsutzen sortu eta Tolosan il. Madridko Univeritatean burutu zitun Lege-ikastaroak. Ildo nabarmen ta gogoangarris iriki du Lizardik euskal elertian, bai poesin ta bai prosan ere. Clerki-lanok alde bat utzirik, amaika artikulu ta itzaldi idatzirik ditu. Oiek, liburu batean bilduta, "Itz-lauz" izenarekin argitaratu ziran bere eriotz-ondoren (Donostia, 1.934). "Euskerazundiki soñekoz" jantzi izan baitzun Lizardik amets urduria, titulu orrekintxe idatzitako bere lantxoa jarri degu emen, "Itz-lauz" ortatik aldatus.

ALTUBE-tar SEBER

Arrasaten (Mondragón) 1.879'gn. urtean jaicos, eta 21 urtekin Gernikara aldatus. 1.920' gnean Euskaltzaindirako autstua. Bere lanik geienak "Euskera" agerkarian argitara ziran. Ora emen aipagarrienak: "Erderismos" (euskerari dagokion joskera edo Sintaxiren ixtudi sakon, zorrotz eta edatus), El Acento Vasco en la prosa y en el verso, Observaciones al tratado de Morfología Vasca de Don R.M. de Azkue, La Vida del Euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa. "Tercer Congreso de Estudios Vascos" izenarekin argitaratu zen idazlan-bilduman ere ba-du lan gogangarri bat: "Euskelitz barrijak" (Gernikako batzarrean, 1.922 urtean irakurria). "Euski Jakintza", "Gernika" ta beste euskal aldizkarietan ere ba-ditu, sekabanaturik, lan ederrik asko. Orain Fuentziko Pau urian bizi da Altube jauna.

Bere euskaltzaín sarrera-itzaldiek gai auxe
du: "Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia";
eta beronetatik artu izan dira onako lerro auxek.


GARRO-tar BERNARTA MIRENA ("OTXOLUA")

Mundakan jaios, 1.891' ganean. Bere euskal-lan guztiak izparrigietan (egunkarietan) agertu ziran: euren artean "Bertolda eta Bertoldin" (gero liburu batean bildua), "Bijar Donianera" (au ere liburutxu batean gero argitaratua), Jean Barbier-en laburdierazko ipuiak bizkaierara biurtuta, eta ingelanderatik eta erderatik arturiko "Abere Ipuñak", "Abere Dóntsuak" "Euskalerrriko Abere eta Piztiak" eta beste irakurgai batzuk. Cardenal Gomá-ren "Los Evangelios Concordados" ere bizkeieratu du, baita argitara gabe dauka. Clerkia etsa bertso berrisk ere egin izan ditu. Bilbaoen bizi da.

"Bertolda sen maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldenkeri barregarrijak", G.C. della Croceek italeraz egindako liburu ospetsuaren itzulpena da (Bilbao, 1.932). Ona emen bertatik jaso-tako atala.

LEKUONA - tar I M A N O L

Oiatzungo semea, 1.894-ganean. jaioa. 1.916'gn. urtean Gazteizko (Vitorriako) Seminarioan euskal-erakusle izendatua. Eijo y Garey Obispo jaunaren aginduz, Kristau Ikasbidea (Dotriña) Gi-puzkoako esukeraz jarri zun, erderaz Pildaun jau-nak egin zuanetik. Martinez eta Muxika Gazteizko Obispo ziran bitartean, Gotzai-idazki edo Pastora-lak euskeratzen zitun. 1.935'ganean. argitara zuan "Literatura oral euskérica", 200 orrialdeko liburua. Espaiñiko gerra ezkero argitaratuak: Nere getrateko amabi kantak, Jesu Aurraren poematxoa, Gurutzearen izena gure Toki-izendegian (euskaritzain sarrera-itzaldia). Euskaltzaindiaren ardura pеan argitarar dan Gero-ren edizione berria ere (Zarautz, 1.954), Lekuona jaunak prestatua eta sitzin-solas-tua izan da. Aitzin-solas onetatik artuak dira lerro suek.



ORMAETXEA-tar NIKOLA ("CRIXE")

Gipuzkoako Oreja-n 1.888 gnean. jaio zan. Euskal idazle trebe ta ugaria. Euskal elertiak ez-tio iñori berari siña zor, naiz itzulketan, naiz lan propiak egiten. Liburu bezela argitaratu ditu: Mi-reio (Mistral-ek proventzalez egindakoaren itzulpena), Tormes-ko itsu-mutilla (erderazko El Lazerillo de Tormes-en itzulpena), Santa Cruz Apaiza (karlisten gerrateko spaiz ospetsuaren kondaira), Euskaldunak (poema sundie, neuritzetan, euskaldunen oitura ta bizieraz), Urte guziko Meza-bezperak (Misala osorik itzulia). Euskal aldizkarietan ere makiña bat lan eder ta sekon agertu ditu: "Jesuseen Biotzaren Deia"-n, "Euskal Esnalea"-n, "Euzko Gogoan"-n, Gernika"-n, t.a. Gogoangarri da Euskal-Esnalean agertu zun arakoñez "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra" (1.927). Argitara gabe ditu: Salmutegia (Bibliako Psalmuak), San Agustiñen Aitorpe-

nak (confessions), t.e. Ona eñen Orixe-ren puske-
ta batzuk, Euzko Gogoatik artuta.

22

IBINAGABEITIA-tar ANDIMA

Elantxobe-ko seme argia. Egun euskerak ditun idazle geraienetakoak, euskal aldizkarietako bere idazlan bikaiñetatik agiri danez. Guatemala-ko "Euzko Gogoa"-n ari da lan da lan. Argitera eman-be rri du euskeraz ikasteko moldem tipi bat: Euskera irudi-bidez - Nuevo método de euskera básico, por Norbait (Paris, 1.953). Ona enen Euzko Gogoatik artutako atal bat; Bach musikalari ospetsuaz mintzo zaigu bertan.


27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

23

E U S E B I O E R K I A G A ("ENDAITZ")

Lekeition jaioa da, 1.912^{gn.} Gazterik idazten hasia; 1.930-36 urteetan euskal-saillak zituzten addizkarietan lankide izan zan, izlauz eta izneurtuz. Eusebio Azkueren gorazarrez Lekeition 1.936^{gn} egin zan Olerti-egunean, aipagarria izan zan "Lore gorriak" bere olerkia. Poesi-sari nabiarenak Donostian iaso ditu, 1.950 eta 1.951^{gn.} urteetan, "Nekazariarenā" eta "Azkueren Heriotzan" olerkiékin. Azken urte hortan, "Sinisgogorra" teatru-lanaz, lendabiziko saria, gipuzkeraz idatzia. Hemengo atal hau, "Arranegi" maite-nobelatik hartutako pusketa da, bizkaieraz egiña. Platonen "Parmenides" ere lapurdieraz itzulia du. Euskaltzaindiak urgazletzat hautatu zuan 1.952^{gn.} urtean. Bilbaon bizi da.



S A L B A T O R E M I T X E L E N A

1.919'gn. urtean jaio zan Zarautzko seme
au eta Frantziskotarren artean bere ikasteak egin
zitun. Euskaldun predikari trebes ta idazlari bi-
kaiña, bai izlauz ta bai izneurtuz. Bere euskal
lanak: "Arantza zu, euskal sinismenaren poema (bi-
alditan)", 1.949'gn. urtean; "Ama-Semeak Arantza zuko
Kondairan", 1.951 gnean. Agi danez, Ama Birjiña
Arantza zukoaren Santutegiaz mintzo da bi len oie-
tan. Poemaren irugarren aldi edo partea ere argi-
taretzeko gerturik dauka, "Bizi nai" izenarekin.
Uruguayko Montevideon bizi da orain, ango Frantzis-
kotar euskaldunen komentuan.

"Bizi nai" orren Ataurreko edo aitzin-so-
lassa eskeintzen dizugu emen.

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

~~25~~ 25

E T X A I D E - t a r J O N

Donostian jaioa, 1.920'gn. urtean. Idazle trebe bezela agertu zaigu azken urte auetan. Eusko-Goga aldizkarien idazlan asko ditu: Agur Zuberoa, (eleberritxo), Garoa eleberria, Euskera Arriaroan, t.a. Liburuak: Alos-torrea (eleberritxo), Purras-punkra (ipui-sorta). Argitara gabeak: Etxahuni buruzko eleberria, Fernando Plaentzitarra (ipuibilduma), Amasei seme Euskalerriko, t.a. Oña emen Alostorratik artutako zatia.




KRUTWIG-tar KAROL

Bilbotar gazte au 1921 gn. urtean jaio zan. Aita alemanitarra du, ama, berriz, bizkaitarra, baiña euskerarik eztakiana. Bilbao-ko "Colegio Alemán"-ean bere ikasteek burutu ondoren, euskeraz ikasteari gogoz ekin zion. Euskaltzaindiaren berpiztea (Espainiko gerrate ondoan) berari zor zaio. Anitz idazlan argitara ditu "Gernika" ta "Eusko Gogoa" aldizkarietan, bai itzlauz ta bai itzneurtuz ere. Krutwig jaunaren aburuz, gure literatur-batasuna egiteko, aspaldiko gure idazle aundien bideari ta izkera-moduari jarraitu bear genioke euskal idazle danok, Bidazoz onuzko eta aruzkoak, alegia. Axular-Etxeberri bikoite ospetsuak erakutsiriko bideari atxikiak izanik, laster genuke lortua bear-bearreko degun batasun ori. Orrezaz gaiñera, kultur-gaietan, Okzidenteko erri ta izkuntza orotan edaturik dagoan terminologia greko-latindarra, euskal idazleek ere on-ar dezatela eskatzen du. Egun Paris-en bizi da Krutwig jauna. René Lafon jauna Euskal-

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40



tzaindian sartzean, Krutwig jaunak egin zuan itzaldiko
zatitxo bat jarri da emen. Itzaldi ori Baionan, 1950 ko
Uztailaren 15 garrenean egin zan.

